

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2017ko URTARRILAREN 12an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2017ko urtarrilaren 12an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
 Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
 Ander Leon Nanclares
 Angel Serrano Martinez
 Aritz Sarria Saraqueta


Bere ezin etorria azaltzen du: Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2016ko abenduaren 1ean egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 1 de diciembre de 2016.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Asteasuko Udalaren eskaeraren azterketa, hala bada/ Estudio de la solicitud realizada por el Ayuntamiento de Asteasu.**
- 4. Erniozaleak Kultur Elkarteari 2016 urtean emandako diru-laguntzaren kontu zurigarrien onestea, hala bada/ Aprobación de la justificación de pago de la ayuda económica concedida a Erniozaleak Kultur Elkartea en el ejercicio 2016.**
- 5. Larraulgo Laztari 14A etxean hainbat lan egiteko obra baimena eskaera, I.B./ Solicitud de licencia de obra para realizar obras en Laztari 14^a etxea de Larraul,I.B.**
- 6. Gure esku dago Tolosaldea GEDT-GAB Kultur Elkartek eginiko eskaeraren azterketa, hala bada./ Estudio de la solicitud realizada por Gure esku dago Tolosaldea GEDT-GAB Kultur Elkartek.**
- 7. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 8. Beste batzuk/Otros.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

9. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2016 urteko abenduaren 1eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

31/2016 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 20koa, Giza eskubideak, irtenbidea, bakea, Euskal Presoak Euskal Herrira! Manifestuari atxikimendua ematea, ebazten duena.

32/2016 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 20koa, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari aparteko ekarpena egitea, ebazten duena.

01/2017 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 10ekoa, Maderas Garmendiari 300 eurotako isuna jartzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

ASTEASUKO UDALAREN ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik, 2016ko abenduaren 19an Asteasuko Udalak aurkezturiko idatzia, non ondorengo dioen:


Joan den otsailaren 16an Asteasu eta Larraulgo udalaren artean partekatzen dituzten herribideen konponketarako hitzarmena sinatu zen. Bertan hau jasotzen da:

“Hirugarrena.- Herri Bidearen konponketa gastuen banaketa.

Herri bideen konponketa gastuak datozen hiru legegintzaldirako jarraian adierazten den moduan banatzea adostu da:

1º 2014-2019ko Legegintzaldia: ASTEASU %60

LARRAUL %40



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Kontutan izanik 2016an Sorarrain Zahar, Sorarrain eta Abeletzeko herribidean izandako kalteen konponketa egin dela, hemen duzu dagokion kitapena:

-Excavaciones Oruezabal: 37.795,56€

-Paskin: 2.359,50€

Denetara: 40.155,06€

Larraulgo Udalari dagokion %40: 16.062,02€

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2016ko otsailaren 16an Asteasu eta Larraulgo udalen artean partekatzen dituzten herribideen konponketarako sinatutako hitzarmenaren babesean, Asteasuko Udala 16.062,02 euro ordaintzea, Sorarrain Zahar, Sorarrain eta Abeletzeko herribidean izandako kalteen konponketa lanak egiteagatik.

BIGARRENA: 16.062,02 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadila agintzea 2016 urteko aurrekontuko 1 0000.601.153.20.01 partidaren kargura.

LAUGARREN PUNTUA

ERNIOZALEAK KULTUR ELKARTEARI 2016 URTEAN EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAREN KONTU ZURIGARRIEN ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Erniozaleak kultur Elkarteak aurkezturiko, 2016an egindako mendi ibilaldiaren, diru-kontuen kitapena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


BAKARRA: Erniozaleak Kultur Elkarteak aurkezturiko, 2016 urtean egindako mendi ibilaldiaren, diru-kontuen kitapena onestea. Ondorengoa izanik:

-Sarrerak: 5.945,00€

-Gastuak: 5.464,23€

-Soberan gelditzen dena hurrengo ibilaldietarako: 480,77€

BOSTGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LARRAULGO LAZTARI 14A ETXEAN HAINBAT LAN EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, I.B.

Ikusirik I.B. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Laztari 14A etxearen ganbaran, komun bat eta hiru logela moldatzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari teknikoak, 2017ko urtarrilaren 9an eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO LAZTARIA 14-A ETXEAREN GANBARAN, KOMUN BAT ETA HIRU LOGELA MOLDATZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

I.B.G. jaunak, Laztaria 14-A etxearen ganbaran komun bat eta hiru logela moldatzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen batazbesteko aurrekontu eta plano bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkeztutako eskarian, gaur egun barne banaketarik gabe dagoen ganbaran, hiru logela eta komun bat moldatu nahi dela esaten da, planoetan azaltzen diren paretak eta ateak jarriz. Lan hauen aurrekontua BEZ-a gabe 2.000€-koa izango litzateke.

Larraulgo Arau subsidiarioen 14º artikulua esaten duen bezala, hirigintza-diziplinaren arautegiaren lehenengo artikuluan azaltzen diren ekintzak, udal lizentzia behar dute. Lehenengo artikulua horretan, eraikinen barruko antolaketa aldatzen duten lanak sartzen dira.

Laztaria 14-A etxea Larraulgo lur hiritargarran kokaturik dago, bereziki A.I.U.1 kontsolidatutako kaskoan. Proposatzen diren lanak barne distribuziokoak dira bakarrik eta ez dute hirigintzako aprobetxamendurik aldatzen. 1,80m altuera azpitik dauden espazioek ez dute konputatzen.

Sortzen diren barne-espazio berri hauek Larraulgo araudiak ezarritako bizigarritasun baldintzak bete behar dituzte, kasu honetan, bereziki, Larraulgo Arau subsidiarioen Lur hiritargarriko 34º artikulua dioena;

“- Iluminación y ventilación de las piezas habitables.

Todas las piezas habitables de las viviendas tendrán iluminación y ventilación natural por medio de una o más ventanas abiertas en fachada.


La superficie de iluminación de las piezas habitables no será inferior a un décimo de la superficie de su planta.

La superficie de ventilación se podrá reducir hasta un tercio de la iluminación.

Los cuartos de baño podrán ventilarse mediante conductos de ventilación individuales con una superficie libre de 150 cm². Caso de disponer de rejilla en el arranque del conducto de ventilación se garantizará una abertura mínima permanente de 100 cm².

No se permitirá la iluminación ni ventilación mediante huecos contruidos en la cubierta, a excepción de aquellos huecos de acceso al tejado “.

Hau honela izanik, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

*Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean"

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.B.G. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Laztari 14A Etxearen ganbaran, komun bat eta hiru logela moldatzeko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

GURE ESKU DAGO TOLOSALDEA GEDT-GAB KULTUR ELKARTEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Gure esku dago Tolosaldea GEDT-GAB Kultur elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten, Larraulgo Gure Esku Dago batzordeak 2016-2017 ikas urterako, instituzio publikoaren laguntza behar duela, egitasmoak aurrera eramateko. Horregatik, 0,5€ 16 urtez gorako biztanleko ekarpena egin dezan eskatzen dio Larraulgo Udalari, gutxi gora behera 100,00euro izanik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:


BAKARRA: 2017 Udal aurrekontuetan, 100,00euroko partida bat sortzea, Larraulgo Gure Esku Dago batzordeak, 2016-2017 ikas urtean, euren egitasmoak aurrera eraman ditzan finantziazioa izateko.

ZAZPIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

CORREOS	1,51
---------	------



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	404,77
EBA ERKIZIA	681,71
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	4.031,21
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	4.118,91
ULAHI	377,52
BERRI LANTEGIA	24,20
SANIPLAST	101,88
AXA	1.182,92
KIROLZER	63,15
BULEGOAK	102,05
BELARMENDI	1.110,11
BELARMENDI	75,47
TOLOMENDI	152,50
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	946,20
AITZOL	40,60
AITZOL	56,84
AITZOL	64,96
MANPEL	11,01
GAZTEZULO	22,00
IBERDROLA	234,21
IBERDROLA	190,73
IBERDROLA	34,41
IBERDROLA	380,53

Udalbatzarrak **ahoko** batez hurrengoa,

ERABAKITZEN DU


BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **14.409,40** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

8.1.DINA 7 KULTUR ELKARTEAK AURKEZTURIKO FAKTURAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2016ko uztailaren 28an egindako Udalbatzarrean, DINA 7 Kultur Elkarteari, Larraulgo Museo Etnografikoaren zerbitzua eskaintzeko kontratua esleitu ziola, 18.000,00 eurotako diru kopuruan.

Ikusirik, DINA 7 Kultur Elkarteak, Larraulgo Udalari 2016/11 faktura aurkeztu diola, 18.000,00 eurotako diru kopurukoa, bertan "Linua izeneko programa didaktikoa,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

tailerrak, binilozko euskal disken erakusketa eta 2016 hegaldi Larraulen izeneko eskultura sorta” ekintzak egin dituela azaltzen da.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Dina 7 Kultur Elkarteak aurkezturiko 2016/11 faktura onestea, 18.000,00 eurotako diru kopurukoa.

BIGARRENA: 18.000,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadila agintzea 2016 urteko aurrekontuetako 1 0000.227.333.00.01 partidaren kontura.

HIRUGARRENA: Dina 7 Kultur Elkarteari jakitera ematea, 2016/11 fakturan zerrendatutako ekintza guztien memoria xehatua aurkeztu beharko duela Udaletxe honetan.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA